

GURE IDEIA

Bizi garen mundu globalizatu honetan, gizakia mundua suntsitzen ari da, gero eta hondakin gehiago sortzen ditugu eta kutsadura tasak goraka doaz, oso zaila delarik hori kontrolpean izatea. Egoera hau kontutan izanda eta ekizailetasuna praktikan jarritz, kutsadura murrizten eta gizarteari onura bat sorrarazten dion negozio-eredu bat martxan jartzea pentsatu dugu.

Gure enpresa aplikazio batean datza; latak, plastikozko eta beirazko botilak erreziklatzeagatik herriko dendetan erosteko baleak ematen dizkizuna. Horretarako, kalean birziklatzeko edukiontzi bereziak jarriko ditugu. Edukiontzi hauek erabiltzeko, kode pertsonalizatua ematen dizun aplikazio bat deskargatu beharko duzu. Beraz, edukiontzia erabiliko duzun momentuan, pantaila-taktilean zure kodea sartuz botilak sartzeko hutsunea zabalduko da. Horrela makinak pertsona bakoitzak zer birziklatzen duen erregistratuko du eta datuak mugikorrera bidaliko dira. Zenbat erreziklatu duen kontuan izanda, pertsona bakoitzak bale batzuk edo beste batzuk jasoko ditu.

Gure enpresarentzako SLOGAN bat pentsatzen ibili ginen eta hurrengo egokia dela ikusten dugu: *“RecyClean, zure herria garbiagoa egin.”* Sloganean, enpresaren izena agertzen da eta horretaz gain, gure enpresaren helburuetako bat aipatzen dugu gure bezeroei birziklatzeko kontzientzia bultzatuz.

Logoari dagokionez, irudian agertzen den botilak, birziklatutako produktua irudikatzen du eta kanpoko borobilarekin birziklapenaren prozesua isladatu nahi izan dugu. Izena jartzerako orduan, hitzen joko bat egitea pentsatu genuen, Recycling+Clean = Recycleclean, modu honetan argi geratzen da gure jarduera zertan datzan eta etorkizunean internazionalizatzeko aukerak baldin baditugu, izena ulergarria izango da herrialde ezberdinetan.

